



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA  
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C  
Tel: 948 76 43 75  
junta@aezkoa.net  
valledeaezkoa@gmail.com  
www.aezkoa.org

Ariben, 2026ko apirilaren 9an, goizeko zortziak eta hogeita hamarrean, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren batzarrekideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

## **BILDUTAKOAK**

**Batzarreburu jauna:** Karlos Bueno Reka

**Batzarrekide jaun/andereak:** Magallon Arbizu, Ángel - Merino Iriarte, Juan Esteban - Ubau Galarza, Nere.

## **LEHENA.- AKTAK ONESTEA.**

Eragozpenik agertu ez baita, honako bilkura hauen aktak onetsi dira: otsailaren 13ko arruntarena, otsailaren 25ko bereziarena eta martxoaren 25eko berezi eta premiazkoarena.

## **BIGARRENA.- PSTD-PRTR PROIEKTUEN BUKAERARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Jakinarazi da amaitu direla Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (Jasangarritasun Turistikoko Helmugako Plana) funtsen dirulaguntza duten bi proiektuak, gauzatzeko gehieneko epea martxoaren 31rako ezarrita zutenak. Arrazola-Irabria pistako obrak martxoaren 18an amaitu ziren, eta aurreko bileran azken ziurtagiria onartu zen. Turismo-informazioko pantaila ere jarrita dago garaian, baina ez da Aste Santurako martxan jarri; izan ere, espazioa berrantolatu behar da, artisautza-elkartearekin adostu ondoren, elkarte horrek une honetan espazio berean erakusten baititu bere lanak.

Egindako kalkuluen arabera, hauek dira proiektu bakoitzari dagozkion kopuruak:

- Arrazola-Irabria pista. 571.000,00 euroko dirulaguntza jaso zen, horietatik 11.000,00 ibilgailu elektrikoetarako kargagailuen proiektuari zegozkion. Batzarre Nagusiak uko egin zion jarduketa hori gauzatzeari, eta zenbateko hori itzuli zuen.

Beraz, Irabiako pistarako 560.000,00 euro geratu ziren. Azpiegitura horri lotutako gastuak honako hauek izan dira:

- Proiektua idaztea eta obrak zuzentzea:	40.383,76 €
- Gauzatutako obren ziurtagiriak:	508.438,21 €
Arrazola-Irabria pista guztira.....	548.821,97 €

Hau da, exekutaturako lanek 11.178,03 euro gutxiago egin dituzte.

- Informazio-pantaila: 7.000,00 euroko dirulaguntza jaso zen. Gastuek 6.996,36 € egin dituzte; beraz, 3,64 € gutxiago gastatu dira.

Likidazioa bidali ondoren, Cederna-Garalur elkarteak adierazi du posible dela soberan dauden zenbatekoekin finantzatzea beste proiektu batzuen kostuak. Kultur Olan egindako jarduketek, funts horiekin ere finantzatu zirenak, ez zutenez gastu osoa egin, 11.514,01 € gutxiago finantzatu baitziren, proposatu

dute Irabiako pistarako eta ukimen-pantailarako dirulaguntzetatik gastatu gabeko kopuruak eskualdatzea, 2023an eta 2024an Kultur Olan egin ziren lanen zati ez-finantzatua estaltzeko. Horrekin, Batzarre Nagusiak bere gain hartu beharko luke bakarrik Kultur Olaren gainkostua (400,00 eurotik beherakoa).

Proposamen hori aurkeztuko da Pirinioetako Lurralde Garapeneko Planaren Batzorde Teknikoak apirilaren 20an eginen duen bileran, onar dezaten. Osoko Bilkura ados dago proposamenarekin.

Era berean, jakinarazi da apirilean zehar prestatuko dela proiektuak justifikatzeko beharrezko dokumentazio guztia, Ministerioaren plataforman sartzeko.

### **HIRUGARRENA.- LANA ETA FAMILIA BATERATZEKO ZERBITZUA: BATZARRE NAGUSIARI EMANDAKO KUDEATZEKO AGINDUA.**

Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan Aezkoako Batzarre Nagusiarri esleitu zaion dirulaguntza (60.000 euro, Pirinioetan lana eta familia bateragarri egiteko zerbitzua kudeatzeko) jasotzeko izapideak hasi direla jakinarazi da (210002-21400-4609-922108 partida). Kudeaketa sistema, Toki Administrazio Departamentuarekin hitz egin ondoren, gaur egun Añamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta Zaraitzu eta Erronkari haranaren eremuan lana eta familia bateragarri egiteko zerbitzua zerbitzuak antolatzen dituzten hiru erakundeek Batzarre Nagusiarri kudeaketa aginduaren bidez egiten da.

Zerbitzuen loteak diseinatzen, kudeatzeko aginduak eta horiek arautuko dituzten hitzarmenak prestatzen hasi dira. Honakoa da akordioaren testua:

1. Onartzea Aezkoako Batzarre Nagusiarri (xx tokiko erakundea) kudeatzeko agindua egiteko oinarria izanen den hitzarmena, Lana eta Familia bateragarri egiteko eskualdeko (Añamendi, Zaraitzu, Erronkari) Zerbitzua kontratatzeko, eta Aezkoako Batzarre Nagusiarri ahalmena ematea zerbitzu hori abian jartzeko beharrezkoak diren izapide guztietarako: beharrianak zenbatesteko, baldintza pleguak egiteko eta lana eta familia bateragarri egiteko zerbitzuak kontratatzeko, bai eta Nafarroako 2026ko aurrekontu orokorretan aurreikusitako dirulaguntza lortzeko izapide guztiak egiteko eta horri lotutako gastuak justifikatzeko ere.

2. Ahalmena ematea xx-ko toki-erakundeko alkateari/lehendakariari, haren izenean eta ordezkaritza aipatutako hitzarmena sina dezan.

3. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Hitzarmen-eredua prestatu ondoren, Batzarre Nagusiarri aurkeztuko zaio, onar dezan eta gomendioa egiteko erabiliko diren gainerako erakundeei bidal diezaien.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

### **LAUGARRENA.- URROBI PARTZUERGOAK EGINDAKO BILEREI BURUZKO INFORMAZIOA**

Batzarreburuak jakinarazi du gaur iritsi dela Batzarre Nagusiko postara Aurizberriko kontzejuaren proposamena, industrialdea handitzeko behar diren lursailak saltzeko. Martxoaren 6koa da ere, orain arte inork ez zuen Batzarre Nagusi honetara helarazi. Eskaintzak metroko / 5 eta 7 € arteko prezioa du, baina lurzorua benetako balorazioa 10,81 €-koa da.

Bestalde, joan den astean bilera bat egin zen Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiarekin. Bertara joan ziren Batzarre Nagusi honetako eta Erroibarko Udaleko ordezkariak eta aholkulari bat. Toki Administrazioak uste du ezin dela partzuergoaren figurarekin jarraitu, ez datorrelako bat Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen aurreikusten duenarekin. Gaiari buruz luze eta zabal eztabaidatu ondoren, Erroibarko Udalaren eta Batzarre Nagusiaren arteko lankidetzaz-hitzarmena sinatzea proposatu zuten, industrialdea sustatu, kudeatu eta garatzeko. Hitzarmenean lursailak elkarrekiko jabetzan erostea aurrakusi da, etorkizunean ere batera saldu ahal izateko. Horrela, lurak erosteko eta saltzeko aurrekontua ez zaio erakunde bakar bati egotziko, izan ere, horrek eragina izaten du gastuaren, zorpetzearen eta egonkortasunaren datuetan.

Gaur iritsi da Hitzarmenaren testuaren proposamena ere. Aztertu eta Batzorde Exekutiboa eta Urrobi Partzuergoaren Biltzarra deitu beharko dira, eztabaidatzeko. Horretaz gain, onetsi behar da Erroibarko Udalak aurrakusi zituen 2021etik 2025era bitarteko (biak barne) kontuen likidazioa. Bere garaian erabakitakoaren arabera, Partzuergoaren kontuan sartu behar dira espazioan sortzen diren zerga eta tasengatik bildutako zenbatekoak, kontzeptu bereko gastuak deskontatuta. Zenbateko hori nahikoa izanen litzateke lurak Aurizberriko kontzejuari erosteko.

Batzarre Nagusiak lursailak erosteaz duen iritziari buruz galdetuta, Osoko Bilkura lau mila metro koadro erostea proposatzearen alde agertu da.

#### **BOSGARRENA.- EHENERGIA-REN PROPOSAMENA**

Udalbiltzak EHnergia izeneko proiektua aurrakusi du, komunitate energetikoen sarea, komunitate energetikoak garatzeko eta toki entitateek behar ditzaketen energia arloko lan eta proiektuak garatzeko. Proiektu horrek Europa mailako kooperatibaren egitura izanen du, eta kapital soziala behar da hura eratzeko. Horregatik, entitateen ekarpena eskatu dute, bai bazkide kontsumitzaile gisa, bai bazkide laguntzaile gisa egiteko.

Apirilaren amaieran Udalbiltzako ordezkariak bisita bat egingen dute, hainbat gai ezagutzeko, eta proposamen horri buruz hitz egin ahal izanen da. Halaber, Osoko Bilkurak erabaki du alde aurretik jasotzea ibarreko udalen iritzia ere.

#### **SEIGARRENA.- BIOSFERA ERRESERBA – EKINTZA PLANA.**

Aurreko bileretan azaldu zen bezala, Nafarroako Gobernu Biosfera Erreserbaren Ekintza Planaren proposamena idazten ari da, Aezkoa eta Zaraitzuko Batzordeek eskatutakori erantzunez hartutako konpromisoari jarraikiz. Une honetan, horren zirriborroa aurrakusi da, bilkura honetarako deialdiarekin batera bidali zena. Edukia ongi berrikusi behar denez, osatu edo onartu aurretik, Osoko Bilkurak erabaki du Eraso jaunari, Nafarroako Gobernu Biodibertsitateko eta Arrain Kudeaketarako Zerbitzuko zuzendariari, bilera bat eskatzea Plan hau Aezkoa eta Zaraitzuko Batzordeetan azal dezan. Behin betiko planak aurtengo uztaileko onartuta egon behar du.

#### **ZAPIGARRENA.- TURISMO ETA ABELTZAINZA ARLOETAKO BILEREI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Ibarreko abeltzaintza-sektorearekin izandako bileren berri ematen da, dagozkien aktak irakurri dira. Martxoaren 25ekoan IBR gaixotasunari buruzko

akordioak jasota daude. Aurretik Nafarroako Gobernuak Animalien Osasun Zerbitzuarekin izandako bileraren arabera, larre-kanpainaren hasiera-datak zehaztu dira:

#### 1.- IBR gaixotasuna:

Kanpaina honetan beharrezkoa da herri bazkalekuetara sartzen diren behi guztiak garraiatzeko gidak (eramatekoak eta itzultzekoak) belarritakoen informazioan oinarrituta egitea

; zezenen kasuan, beharrezkoa izanen da IBR-aren emaitza negatiboa duen analitika bat izatea, larreetara sartu baino hamabost egun lehenago egindakoa.

#### 2.- Bazkalekuetara sartzea.

Ezin izanen da bazkalekuetara sartu martxoaren 30etik aurrera. Euntze eta itxituretara sartu ahal izateko datak honako hauek izanen dira: Sariozarkora sartzeko: maiatzaren 8an (alde aurretik, hara eramanez den ganaduak Irongoan egon beharko du maiatzaren 1etik aurrera, eta belarra agortu arte). Bukatutakoan, Sariozarrera sartu ahal izanen da. Abodiko itxituraren kasuan, ikusirik zenbat ganadu dagoen apuntatuta hara sartzeko, abeltzaintza ustiategi bakoitzeko gehieneko kopuruak ezarri dira, honakoak, hain zuzen ere: 15 behi-buru eta 6 behor-buru. Itxitura horren kasuan sartzeko epea maiatzaren 10etik 20ra bitartekoa izanen dira. Nabalako belardiari dagokionez, maiatzaren 14tik aurrera sartu ahal izanen da. Ardiak eta moxalak belardi berean bazkatuko dira.

#### 3.- Hainbat

Bertaratutakoek Indurrieta inguruan (goiko aldean) dagoen alanbrehesia kentzeko eskatu dute. Bestalde, mintzatu dira ganadua lepoko bidez kontrolatzeko antenak jartzeari buruz. Dagoeneko, ustiategi batzuetan horrela egiten ari dira. Erabaki da Batzarre Nagusiak ordenantza baten bidez ezartzea hori egin ahal izateko baldintzak.

Turismo-sektorearekin martxoaren 9an egindako bilerari dagokionez, WhatsApp taldeari buruz hitz egin zen, eta hori berriz funtzionamenduan jartzea turismo-gaietarako eta sektore horretan lan egiten duten pertsonentzat soilik. Kultur Ola ezagutzera ematea eta bisitaldiak sustatzea eskatu zen, pertsona gehiago joan daitezkeen espaziora, eta positibotzat jo dute komunitate sartzeko arauak ezartzea, gehiegikeriak saihesteko. Halaber, Batzarre Nagusiari eskatu zioten herrietan bisita gidatuak egiteko aukera azter zezala, horiek sustatzeko eta bisitariei gauza interesgarri gehiago eskaintzeko. Abeltzaintzari buruz egiten ari den lanaren alde agertu ziren.

Aurreko bileran bezala, hitz egin zen food-truck zerbitzu bat (janaria prestatzeko eta saltzeko egokitutako ibilgailuak) Iratin aritzeko baimena ematearen komenigarritasunari buruz. Bileran parte hartu zuten pertsona guztiak ahalmentzearen alde agertu ziren, beharrezkotzat jotzen baitute. Horri buruzko ordenantza bat prestatu beharko da, Orbaizetako udalarekin batera, bera delako zerbitzuari baimena eman behar diona. Autokarabanen eremuari dagokionez, eta besterik egin arte, gaua pasatzeko aparkaleku gisa ireki behar zela erabaki zuten, Batzarre Nagusiak zehaztutako prezioekin, hobi septikoari eta Interneti husteko zerbitzuak eman ahal izateko, eta Bidausi Mankomunitateari gune horretarako edukiontzi-hornidura eskatu zioten.

## **ZORTZIGARRENA.- MUNIZIO FABRIKAN GERTATUTAKO ISTRIPUA - ERANTZUKIZUN ZIBILARI BURUZKO EPAIA.**

Batzarre Nagusi honi jakinarazi zaio 66/2026 zenbakiko epaia jaso dela, Administrazioarekiko Auzien Sekzioarena, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiarena, 0000144/2024 prozedura arruntean emandakoa. Prozedura hori J.J.M eta I.M.J. jaun-andreek sustatutakoa zen Aezkoako Batzarre Nagusiaren eta Mapfre España S.A. aseguru-etxearen aurka (Batzarre Nagusi honek erantzukizun zibileko poliza du kontratatuta), Orbaizetako Munizioen Fabrikari izandako istripuarengatik: emakume bat hil zen eroriko baten ondorioz.

Epaia partzialki baietsi du ondare-erantzukizunaren erreklamatzeko 2022ko abenduaren 23an aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsua, eta erantzukizun hori deklaratu du. Horrenbestez, Batzarre Nagusia eta Mapfre España kondenatu ditu (administrazio hau aseguratzeagatik) J.J.M jaunari 125.638,80 euroko kalte-ordaina ematera eta I.M.J jaunari 27.864,06 eurokoa, gehi, epaian ezarritako moduan, interesak. Kostuak ez zaizkio inori ezartzen.

Epaia honen aurka apelazio-errekurtsua aurkezteko daiteke, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legearen 81. artikuluan araututakoaren arabera.

Jakinarazi da errekurtsu horri emandako erantzunean eskatu zela erantzukideak deklaratu bai administrazioa bai istripua izan zuten pertsona.

Batzarre Nagusiaren abokatuak adierazi duenez, epaiaren argudio nagusia da Batzarre Nagusiak bazekiela bide hori bazegoela, arriskutsua zela, jendeak erabiltzen zuela eta ez zuela inolako hesirik edo arrisku-seinalerik jarrita. Hala ere, erruen konkurrentzia aplikatu behar zutela uste du; aseguru-konpainiaren abokatuarekin harremanetan dago, hark ordaindu beharko baitu kalte-ordainaren kostua, eta jartzea duten errekurtsua jarriko ote duten baloratzen ari dira.

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak, epaia eta hari laguntzen dion abokatuaren komunikatua ikusita, dagokion apelazio-errekurtsua aurkezteko erabaki du, aseguru-etxeak aurkeztuko duen errekurtsuaren alde.

## **BEDERATZIGARRENA.- PRESIDENTEAK EMANDAKO EBAZPENAK.**

Batzarreburuak emandako 2.etik 4.era bitarteko ebazpenak irakurri dira, honako gai hauei buruzkoak:

1- Adierazpen instituzionala onesten duena, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpen guztiak salatzeke, otsailaren 20an Sarrigurenen bizilagun bana hil eta erasotzeagatik. Bi emakume biktima izan ziren, horietako bat, ustez, senarrak hil zuten indarkeria matxistako ekintza baten ondorioz, eta bestea larri zauritu zuten (baieztapen ofizialik ez dago).

2.- Iker Ibero Iriarteri turismo-informazioko ukimen-pantailak instalatzeko kontratua esleitzen diona, bost mila zazpiehun eta laurogeita bost euro eta hamabi zentimotan (BEZik gabe). Kontratua gauzatzeko epea martxoaren 31ra artekoa izanen da, eta Interes Gatazkarik ez dagoela adierazten duen agiria (DACI) aurkeztu beharko da.

3- Kreditu-gerakina sartzeko aurrekontu-aldaketa onesten duena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 211. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2026rako aurrekontuaren 14. oinarrian, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzak egindako txostena ikusita: 1/2026 zenbakiko

aurrekontu-aldaketa onartzea ebatzi da, PSTD-PRTR partidari dagokion kreditu-gerakina sartzeko, honela banakatuta:

1. aurrekontu-aldaketa	188.363,94 €
Soberakinetatik erabilitakoa, guztira:	188.363,94 €
Kopuru hori erantsi nahi den 2026ko aurrekontuko partidaren xehetasuna:	
43901-6320001: PSTD-PRTR Arrazola-Irabilia pista:	188.363,64 €
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen da oso-osorik.	

Osoko Bilkurak berretsi egin ditu egindako jarduketak.

### **HAMARGARRENA.- IRATI-ORREAGA ELKARTEAREKIN HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA**

Proposamena aurreko bilkura batean aurkeztu zen, eta orduan sektore turistikoarekin eta ibarreko udalekin aztertzea adostu zen. 2026. urterako proposatu da pasa den urteko hitzarmenaren helburuei eustea eta Batzarre Nagusiari eskatzea aurten biztanle bakoitzeko 1,5 euroko ekarpena egitea. Proposamen hori aipatutako bileretan aurkeztu zen, eta 2026. urterako hitzarmena sinatzea erabaki zen.

Bada hitzarmena finantzatzeko aurrekontu-partida bat, mila berrehun eta hogeita hamaika euro eta berrogeita hamar zentimokoa. Osoko Bilkurak onartu du Irati-Orreaga Elkartearekin 2026rako lankidetzaz-hitzarmena sinatzea, turismo-sektorea sustatzeko Batzarre Nagusi honen estrategiaren barruan, Irati, Biosfera Erreserba eta Lau Haran Elkartea sustatzeko; eta, halaber, lankidetzetara zabaltzea, izan ere, ezin baita uste Olloki Irati denik.

### **HAMAIKAGARRENA.- ZENBAIT**

1- Turismo-zerbitzuetako langileak.

Azken bilkuran Kultur Olako lanpostuei buruz onartutakoaren ondoren, erabaki zen hurrengo bileran aztertuko zela Kultur Olan eta Arrazolako informazio zerbitzua indartzeko Aste Santuaren ondoren egin beharko ziren kontratazioei buruz.

Eskaintzen diren lanpostuetarako pertsonak aurkitzea zaila zenez, azken osoko bilkuran onartu zen Kultur Olarako informazio-langileen deialdia Aste Santurako bakarrik egitea, eta aldi horretarako propio kontratatatu zen pertsona bat. Hala ere, Osoko Bilkuraren erabakia izan zen lanpostu hori bederatzi hilabeterako eskaintzea, eta deialdi hori hutsik geratu zen. Denbora igaro denez eta langabetuak kontratatzeagatik dirulaguntza gehiago eskuratzea ezinezkoa denez (baso-zerbitzuetako langileentzako dirulaguntzak daude), Osoko Bilkurak erabaki du Kultur Olarako Koordinazio lanpostua berriro iragartzea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzarik gabe, eta aurreko deialdirako baldintza berberekin, martxoaren 28tik abenduaren 11ra arte, hots, zazpi hilabete eta erdi gutxi gorabehera. Era berean, Kultur Olarako bigarren informazio-posturako deialdia egitea erabaki da, aurreko deialdian zeuden baldintza berberekin, ekainaren 10etik abenduaren 9ra arte, hots, guztira sei hilabetetarako; eta, azkenik, Arrazolako informazio-zerbitzuko bajak, errefortzuak eta abar betetzeko kontratazio-zerrenda eratzeke deialdia onartu da.

Oinarriak onetsi dira eta aurreko deialdietarako izendatutako hautapen-epaimahaiaren osaketa mantendu da. Hori guztia akta honi erantsirik gelditu da.

## 2- Nafarroako iparraldean turismo-esperientziak garatzeko programa.

Cederna-Garalur elkarteak egindako programa da, marketin-proiektuaren esparruan. Hainbat fitxa egin dituzte programa honetan parte hartu duten erakunde eta profesionalekin (Aezkoako Batzarrerako fitxa Kultur Ola zentroari dagokio), bidaia-agentziek sustatzeko esperientzia turistikoak egiteko. Esperientzien proposamenek, gertutasunagatik, programan parte hartu duten establezimenduak batzen dituzte, eta Kultur Olarako bisita ibilbide egokituarekin eta Aurizko ostatuarekin lotzeko proposamena egin da. Osoko Bilkuraren ustez, esperientziei dagokien pakete hori ibarreko establezimenduekin eta zerbitzuekin egin behar da, eta, beraz, sektoreari aurkeztuko zaio, tokiko mailan pakete turistikoak sortu ahal izateko, beste noizbait ere aipatu izan den bezala.

## 3.- Kontratua amaitzeko demanda.

Jakinarazi da ezen, kontratua iraungitzeko erreklamazioari buruz urtarilaren 21ean egindako adostasunik gabeko adiskidetze-ekitaldiaren ondoren, Garaialde andreak kontratua azkentzeko demanda aurkeztu duela, Langileen Estatutuaren 50. artikuluan eta, subsidiarioki, lege-testu beraren 52. artikuluan jasotako erregulazioan oinarrituta. Epaitegiak 2027ko maiatzaren 3ko eguna ezarri du adiskidetze- eta judizio-ekitaldietarako. Osoko Bilkurak erabaki du dokumentazioa Biderkari helaraztea, defentsa prestatzeko.

## 4- Oroigarriak saltzeko makinak instalatzeko eskaera.

Irati Sekretuak markako produktuak saltzeko vending-makinak instalatzeko proiektu bat azaltzeko eskaera aurkeztu da. Proiektua baloratu ahal izateko eskatutako bilera egitea erabaki du Osoko Bilkurak.

## 5- Kultur Olari alta ematea turismo-informazioko gune gisa.

Turismo Zerbitzuak Kultur Olari PIT gisa alta emateko formularioa eman dio Batzarre Nagusiari; hainbat bileratan eztabaidatu da informazio turistikorako ohiko bulego gisa funtzionatu behar duen edo soilik Kultur Ola guneko informazio gune gisa funtzionatu behar duen. Batzarre Nagusiaren ustez, oinarriko informazioa eman behar da, baina zentroan dauden langileen lana erakusketei buruzko zabalkunde-, bisita- eta laguntza-lana da. Hori dela eta, batzuetan, eraikinaren behealdean panel batzuk eta informazio turistikoa instalatzea pentsatu da, langileak turismo-bulego bateko lanak egiten ari ez daitezen. Osoko Bilkurak erabaki du formularioa ez aurkeztea, eta Turismo Zerbitzuari adieraztea ibarrean Turismo Informazioko Bulego iraunkor bat jartzea balora dezaketela.

## 6- Nafarroako Unibertsitatearen praktiken programa- Landa Ondarea biziberritzea.

Zenbait jakinarazpen jaso dira, Batzarre Nagusiari programa honen barruan praktiketako ikasleak hartzeko eskatzeko. Erakundearen kostua balioegabea da, programak finantzatzen baitu oso-osorik. Programa kontuan hartuta, Kultur Ola eta Arrazola guneak bisitariei harrera egiteko baterako eskaintza gisa balioesteko azterlan bat eta proposamenak egiteko praktikak

eskatzea erabaki da, praktiketara dagoen pertsonak Kultur Olako erakusketak garatzeko eta zabaltzeko proposamen bat egin dezan, bi zentroen arteko (Kultur Ola/Iratira Arrazolatik sartzeko) turismorako lotura-proposamen bat, eta bi espazioak lotzen dituen bidezidor baten diseinua ere bai.

7- Ibañetako asistentziari buruzko informazioa.

Presidente jaunak azaldu du Ibañeta Asistentziako akziodunen lehen kontseilua egin dela, eskualdeko toki-erakundearen titulartasuna lortzeko egindako prozesuaren ondoren. Amavir taldearen laguntza izaten jarraitzen da, erabaki zen bezala, zentroaren funtzionamendurako. Une honetan, gai hauek lantzen ari dira: laguntza-zentroan lan egiten duten pertsonen prestakuntza, kudeaketa-plataformen erabilera, egoitza-ereduaren plangintza, zerbitzu osagarrien azterketa, otorduak, langileen mugikortasuna eta abar, eta bilera bat egin behar da sindikatu-batzordearekin. Abokatu-talde baten aholkularitza ere badu. Guztiaren funtzionamendua ezagutzeko ahalegina egiten da.

8- Bizikletak konpondu eta kargatzeko puntuaren instalazioa, "Pirinioetako Ibilbide Handia" proiektuaren barruan, Cederna-Garalurrek sustatutako STZPren esparruan.

Arrazolako informazio-etxolan bizikletak kargatzeko estazio bat eta Orbaizetako munizio fabrika konpondu eta kargatzeko estazio bat jartzea aurreikusi da. Era berean, Aezkoako Etxeko garaiaren ondoan, Ariben, bizikletak kargatzeko eta konpontzeko beste gune bat jarriko da. Osoko Bilkura ados dago.

9- Ilunpetik Argira elkartearen eskaera

Josu Zabala Salegiren heriotzari buruzko "Ilunpetik Argira" ikerketa, egia eta bizikidetzaren proiektua aurkeztu dute. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, martxoaren 31n, biktimekin eta memoriaren eta bizikidetzaren kulturarekin zerikusia duten jarduerak egiteko irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateei 2026an emandako laguntzak argitaratu zirenez, % 100erainoko dirulaguntzarekin, aurrekontuaren mugarekin, Batzarre Nagusi honen ustez funtsezkoa da aurkeztutako proiektuarekin laguntza-deialdi honetan parte hartzea, eta, beraz, deialdi horri buruzko informazioa bidaliko zaie.

## **HAMABIGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK**

Ez da galde eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko hamabiak zirela. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.